

## Zaldunborda gelditu!

Udal gobernuko taldeak bozatzeko zer proposamen egiten duen ikusirik, ez dugu aurrerabiderik egin. Alkatean ekainaren 26an gaztelania hutsean argitaratutako dekretuan (1134) onetsi zuen behin-behinekoz Higertoki S.L. enpresari Plan Partzialarekin abiatzea.

Sei hilabete beranduago, abenduaren hiruan, Euskaren Nazioarteko Egunean, hain justu, udal arkitektoak sinatzen du txostena non esaten den Higertoki S.L. enpresak ez dituela bete eskatu zaizkion xehetasunak Plan Partziala onartu ahal izateko. Metafora dirudi: gaztelania hutsean ebatzi zena euskararen egunean zuzentzen da.

Harrigarria da gertatu izan dena. Nekez uler daiteke gertatutako zabarkeria; zergatik ez ditu bete Higertoki S.L. enpresak Hondarribiko Udalak eskatzen zizkion baldintzak? Ezin bete daitezke edo? Enpresak ez ditu gaitasunik xehetasun horiek betetzeko? Ez ditu behe nahi? Edozein kasutan, badirudi, Hondarribiko jeltzaleen Udal Taldeak, berriro ere, eskatu nahi diela *sustatzaileei egin beharreko administrazio izapide guztiak araudiaren arabera bete beharko dituztela*. Zer uste du EAJren Udal Taldeak, orain arte bete ez dutena gero beteko dutela? Zergatik?

Nolanahi ere, Zaldunborda Gaina deritzan proiektu honen muinean ez dira kontu teknikoak ezkututzen. Kontua ez da enpresak baldintza hau edo hori bete duen ala ez. Proiektu honen atzean bi ikuspegi zeharo desberdinek egiten dute talka. *Zaldunborda Gaina eremuan jarduera ekonomikoak sustatzea, lanpostuak sortzen bultzatzea eta kutsatutako atala garbitzea positibo* ikusten dute batzuk, EAJk kasu. EH Bilduk, ordea ez. Guk ez dugu positibo ikusten *txartaleku* lur saileko igarobide ekologikoa hondatzea; ez dugu positibo ikusten outlet erraldoiaren jarduera ekonomiko hori egitea, bakan batzuen mesedetan eta askoren kaltetan delako; ez dugu positibo ikusten lanpostu prekarioak sortzea, natura gunea artifizialtzea, automobil eta turismoaren trafiko izugarri ugaritzea, kontsumo zentzugabea sustatzea, multinazional bakan batzuen kultura uniformizatzailea ezartzea. Ez dugu positibo ikusten, ez inondik inora ere. Hori ez baita EH Bilduk defendatzen duen garapen eredua.

Ez dugu positibo ikusten herri garapenaren eredua oso bestelakoa delako. EH Bilduk Hondarribiaren garapena nahi du, jakina, ekonomikoa, industrial eta soziala. Ekologikoa, justiziazkoa, feminista eta orekatua. Hori ere. Baina nahi dugun garapena ezin izan daiteke natura-ondarearen aurka, gure hizkuntza eta kulturaren kontra, gure gizarte-ehunetik aparte. Beste garapen eredua posible baita, esango genuke, beste garapen eredua behar dugulako.

Ez dela aspaldi Hondarribiko Udalak, EH Bilduren ekimenez, onartu zuela larrialdi klimatiko egoeran gaudela. Badira jarduera ekonomikoak natura zaintzarekin bat datozenak, badago turismo mota bat ingurumena errespetatzen duena. Egia da Zaldunbordan gasolindegia jartzeak epe motzean irabazpideak ekartzen dituela. Bakan batzuei, bederen. Baina guztiok dakigu erregai fosilen kontsumoa murriztu behar dugula. Nork ordainduko ditu gero gasolindegia kentzea eta kutsatutako lurak garbitzea?

Orain Zaldunbordak lehengo jarduera ekonomikoak kutsatutako lurak zigilatzeak 3 milion euro baino gehiago kostatzen du. Kontuan hartzen da outlet erraldoiaren aurrekontuetan egindako kalteak konpontzeko gastua zenbatekoa den? Ameriketako Estatu Batuetan eta Europako iparraldeko herrietan merkatal gune erraldoien ereduak krisi larrian dago, jarri nahi digute hemen beste herrietan nahi ez dutena? Zergatik?

Ardura gaitzen arrantzarekin, baserritarrekin, naturaren babesarekin eta teknologia berrien hedapenarekin. Negozioak egin daitezke, berdeak eta errentagarriak, jakina. Baina zabarkeria hori ez. EH Bilduk jarraituko du garapen eredu berritzaile eta sostengarriaren alde. Zaldunborda gelditu!

Hondarribian, 2019ko abenduaren 7an